

Etaparen testuingurua: alteritatearekiko (egiazkoa edo alegiazkoa) topaketei modu egokian aurre egiteko, garrantzitsua da nor bere esperientziez, jarrerez eta balioez jabetzea. Ildo horretan, norberaren kontzientzia beharrezko oinarria da nork bere burua irekitzeko.

## Helburuak

### Etaparen bukaeran, honako hau lortu beharko lukete ikasleek:

- ✓ nor bere balioez, esperientziez, jarrerez eta sentimenduez ohartzea babesari/migrazioaren gaian;
- ✓ jakin-mina piztea, eta esperimendatzeko eta gaiari buruz gehiago jakiteko nahia izatea.

## Edukia

- ✓ Babesari eta migrazioari dagokionez, ikasleek beren balioen arabera hauteman eta islatzen dute, eta beren esperientzietatik, jarreretatik eta sentimenduetatik abiatuta.
- ✓ Babesari/migrazioaren gaian, ikasleek beren galderak aurkitu eta sortzen dituzte.

## Metodoak

Ikasleen arteko introspektzioa eta trukea, galdera inspiratzaileek gidatuta (eta laguntza-estimuluekin konbinatuta).

## Pausoa #1

### Nire bizitzan, zer da baliotsua eta garrantzitsua?

1

Eskatu ikasleei beren buruari buruzko "profil" bat sortzeko, honako galdera hauek oinarri hartuta. Azaldu ikasleei garrantzitsua dela "bakoitza den bezalakoa agertzea" galdera hauei erantzutean: ez dago erantzun zuzen edo okerrik, ezta erantzun on edo txarrik ere! (galderak → ikasleentzako lan-orriak):

- ✓ Badago pertsona izugarriren bat (beharbada, "heroi" bat), liburuetan, filmetan edo serietan (edo bizitza errealean!), niretzat berezi garrantzitsua dena? Zer miresten dut harengandik?
- ✓ Ba al dago zerbait beste pertsonengan bereziki sutzen nauena? Zergatik sutzen nau?
- ✓ Nire gelan edo leku pertsonalean, ba al dago niretzat bereziki garrantzitsua den zerbait? Zergatik da hain garrantzitsua niretzat?
- ✓ Zer gertatu behar litzateke nire familiak edota nik gure sorlekua utzi eta ihes egin behar izateko?
- ✓ Beste herrialde batera ihes egin beharko banu, edo ihes egin behar izan badut, noren eta zeren falta sumatuko nuke gehien?

2

Eskatu ikasleei 2 laguneko taldeak sortzeko:

Ikasle bat hasiko da eta besteari esango dio zer iritzi duen galdera hauei buruz. Beste lagunak entzun eta esaldi hau osatuz erantzungo dio:

*"Esan berri duzun horretatik ondoriozta dezaket zure bizitzan zer den zuretzat garrantzitsua eta baliotsua. Nire hitzak erabiliz, honela adieraziko nuke: Zuretzat.....da garrantzitsua eta baliotsua"*

- ✓ Iritziak partekatu dituen lagunak esan dezake laburki ea ulertuta sentitu den, eta nola deskribatuko lukeen beretzat zer den garrantzitsua eta baliotsua.



STAGE



- ✓ Ondoren beste pertsonak azalduko ditu bere iritziak...
- ✓ Bukatzeko, bi ikaslek berentzat garrantzitsuak diren gauzei buruz hitz egin dezakete eta zertan diren desberdinak aipatu.

3

Une horretan azalduko dugu zein den ariketa honen helburua:

Oro har, pertsonekin harreman ona eta eraikitzailea lortu nahi badut, baina batez ere niregandik desberdinak direnekin edo arrotz egiten zaizkidanekin (eta egiatan hala direnekin), garrantzitsua da ulertzea eta sentitzea niretzat zer den garrantzitsua eta baliotsua. Niretzat garrantzitsua eta baliotsua dena jakin eta estimatzen badut, beldur handirik gabe izan ditzaket harremanak beste pertsonekin, eta haiekin bat egin dezaket komunitate batean elkarrekin bizitzeko guretzat garrantzitsuak diren gauzetan.

## Pausoa #2

### Nire balioak - zure balioak: desberdintasunak kudeatzea

1

Eskatu ikasleei lehenbizi bakarrik lan egiteko (galderak → ikasleentzako lan-orriak):

- ✓ Zer idei desberdin ditugu bizitzan garrantzitsua eta baliotsua denari buruz? Seguru zure ez bestelako ideiak dituzten pertsonekin topatu zarela behin baino gehiagotan. Egin zerrenda bat egoera hauekin eta hautatu bereziki gogoan duzun bat.
- ✓ Norekin egiten nuen talka egoera horretan? Bizitzan garrantzitsua eta baliotsua denari dagokionez, zertan gara desberdinak?
- ✓ Nire balio batzuez ohartu naiz topaketa horretan? (Beharbada, balio horietaz jabetua nintzen 1. pausoa)
- ✓ Gatazkaren bat sortu zen egoera horretan, bestea(k) konbentzitu nahi izan n(it)uen? Nire iritzia aldatu nuen?
- ✓ Zer sentimendu (sentsazio fisikoak ere beharbada) sumatu nituen egoera horretan?
- ✓ Nire ustez, nola kudeatu nuen egoera? Zerk lagundu zidan? Zerk lagunduko zidan?

2

Eskatu ikasleei talde txikiak sortzeko (3-4) eta elkarri kontatzeko nola bizi izan duten egoera hori.

3

Gero, talde bakoitzeko ordezkari batek hitz gutxitan kontatuko du truke horretan zer izan zen bereziki garrantzitsua.

Astia izanez gero, ikasleek sormenaren bidez adieraz dezakete beren trukaren emaitzaren ondorio garrantzitsuena, adibidez: collage bat eginez (egunkariak/aldizkariak erabilia); kartel batean, online edo arbelean margotuz edo sinboloen bidez, eta antzerki txiki bat eginez.

Ikasgelan egin truke bat galdera hauei buruz:

- ✓ Nolako sentimenduak sortzen zaizkigu horrelako desberdintasunei aurre egiten diegunean?
- ✓ Zerk errazten du desberdintasunei (edo gatazkei) aurre egitea, eta zerk zailtzen du?



Hurrengo pausoetarako, lagungarria izan daiteke bi galdera hauei buruzko hitz gako batzuk idaztea orri batean eta gordetzea. Nahi baduzu sormena gehiago erabili eta hobeki deskribatuko dugu, baldin eta hitzak banaka bakarrik idazten ez badira, eta hitzen hodeiak sortzen badira online edo arbel elektronikoan.



Zenbat denbora duzun, hurrengo bi ariketak egin ditzakegu (3.1 eta 3.2 pausoak) edo bakarra. Bi pausoetan, garrantzitsua da ariketaren bukaeran bildutako galderak gordetzea, ikastaro osoan zehar erabili ahal izateko.

## Pausoa #3/1

### Nire esperientzia errefuxiatuekin eta nire galderak

1

Eskatu ikasleei lehenbizi taldetan (3-5 ikasle) lan egiteko, galdera hauekin: (galderak → ikasleentzako lan-orriak):

- ✓ Non ikusi edo ezagutu ditut errefuxiatuak edo migranteak pertsonalki, edo, hala ez bada, hedabide/Interneten bidez?
- ✓ Non ikusi/ezagutu ditut beste herrialdeetako kultura-jakinduria duten pertsonak?
- ✓ Topaketa horretan edo horietan pentsatzen dudanean: Zer galdera sortzen zaizkit? Zeri buruz jakin nahi nuke gehiago?
- ✓ Errefuxiatu edo migrante bat ikusiko banu (adb.: ikusi/ezagutu nuena): Zer galdetuko nioke?

2

Eskatu ikasleei burura etortzen zaizkien galderak aipatzeko; idatzi (moderatze-txarteletan edo gisakoetan) eta bildu galderak. Gorde itzazue aurrerago horiekin lan egiteko!


## Pausoa #3/2

### Ihes egiten duten pertsonak ezagutu...

1

Erakutsi ikasleei hurrengo bideoak. Aurkezpen moduan esan dezakezu Hiba eta Osamari buruz direla.

- ✓ Hiba Siariako 10 urteko neska bat da, handik ihes egin behar izan zuen eta orain Mazedonian bizi da.d
- ✓ Osama Yemeneko 12 urteko mutil bat da, handik ihes egin behar izan zuen eta orain Grezian bizi da.



Bideoak ikusi ondoren, eskatu ikasleei hausnarketa egiteko (galderak→ [ikasleentzako lan-orriak](#)):

- ✓ Zer sentimendu adierazten d(it)u Hibak/Osamak?
- ✓ Zer sentitu dut nik bideoa ikusterakoan?
- ✓ Zer nahi dut Hibarentzat/Osamarentzat?
- ✓ Hibarekin/Osamarekin hitz egin ahalko banu, zer gustatuko litzaidake galdetzea?
- ✓ Zer ideia edo galdera bururatzen zaizkit Hibaren/Osamaren istorioaren edo babesa/migrazioaren inguruan?

Eskatu ikasleei azaltzeko:

2

- ✓ beren nahiak Hibarentzat/Osamarentzat eta
- ✓ babesa/migrazioaren inguruan bururatu zaizkien galderak

Momentu honetan baliteke ikasle batzuk desegoki edo erasotzaile diren nahiak edota galderak aurkeztea. Horrela bada, beharrezkoa izango da ikasleei holakoak galdetzea: Zergatik pentsatzen duzu hori? Zerk sentiarazten zaizu hain deseroso?

Nola sentituko zinateke Hibaren/Osamaren lekuan egonda?



STAGE



## Hausnartzea

Azaldu etapa honetako hausnarketa-lana (Hausnarketa-lana → ikasleentzako

lan-orriak). Hurrengo etaparako, mesedez:



Egin objektu baten argazkia; objektu horrek zuretzat bereziki baliotsua den eta galdu nahi ez duzun zerbait adierazi edo sinbolizatu behar du. Gehitu azalpen-esalditxo bat argazkiari.



Aukeratu eta apuntatu bereziki interesatzen zaizun eta babes/migrazioaren gaiari buruz argitu nahi duzun galdera bat.

## Laburpena eta trantsizioa

Eskatu ikasleei esaldi gutxi batzuetan azaltzeko zer ikasi duten. Zenbait lagunek beren ekarpena adierazi eta gero, esandakoa zure hitzetan laburbil dezakezu (ikusitako etapa honen helburuak).

Orduan azal dezakezu nolakoa izango den hurrengo etapa: "Hurrengo aldirian, babes-emateari eta migrazioari buruzko ezagutzak barneratuko ditugu!"

# GOAZEN 2. ETAPARA